



Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de
Protección de Datos



**DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOAREN
ETA EUSKADIKO INFORMATIKA INGENIARIEN
ELKARGO OFIZIALAREN ARTEKO
LANKIDETZAKO ESPARRU HITZARMENA**

**CONVENIO MARCO DE COLABORACIÓN
ENTRE LA AGENCIA VASCA DE PROTECCIÓN
DE DATOS Y EL COLEGIO OFICIAL DE
INGENIEROS EN INFORMÁTICA DEL PAÍS
VASCO**

Vitoria-Gasteizen, 2010eko azaroaren 25ean

En Vitoria-Gasteiz, a 25 de noviembre de 2010

BILDU DIRA

REUNIDOS

Alde batetik, José Antonio Martínez Ruiz jauna, Colegio Oficial de Ingenieros en Informática del País Vasco / Euskadiko Informatika Ingeniarien Elkargo Ofizialaren (aurrerantzean COIIE / EIIEO) dekanoa, Elkargoaren Estatutuen (2001eko abuztuaren 7ko 152. zk.ko EHAA) 24. artikulua eskumenak erabiliz eta elkargoaren ordezkari izan.

Beste aldetik, Iñaki Vicuña de Nicolás jauna, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren (aurrerantzean DBEB) zuzendaria, Bulegoaren ordezkari izan eginez, bere izendapena egin zuen 81/2008 Dekretuari jarraiki (2008ko maiatzaren 14ko 90 zk.ko EHAA), otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 15. artikuluan xedatutako eskumenak kontuan hartuta.

Bakoitzak bere erakundearen izenean eta ordezkari izan jarduten du, eta biek aitortzen diote elkarri Lankidetzako Esparru Hitzarmen hau izenpetu ahal izateko jarduteko legezko gaitasuna. Era berean,

De una parte: D. José Antonio Martínez Ruiz, Decano del Colegio Oficial de Ingenieros en Informática del País Vasco / Euskadiko Informatika Ingeniarien Elkargo Ofiziala (en adelante COIIE / EIIEO), en el ejercicio de las competencias atribuidas en el artículo 24 de sus Estatutos (BOPV nº 152 de 7 de agosto de 2001), y como representante del mismo.

Y de otra parte: D. Iñaki Vicuña de Nicolás, Director de la Agencia Vasca de Protección de Datos / Datuak Babesteko Euskal Bulegoa (en adelante AVPD), actuando en representación de la misma, en virtud de su nombramiento por Decreto 81/2008 (BOPV nº 90 de 14 de mayo de 2008) acorde con las atribuciones conferidas según artículo 15 de la Ley 2/2004, de 25 de febrero.

Las partes actúan en nombre y representación de sus entidades respectivas, reconociéndose mutuamente la capacidad jurídica de obrar necesaria para la celebración del presente Convenio Marco de Colaboración y,

ADIERAZTEN DUTE

EXPONEN

Lehenengoa.- Informatikako Ingeniarien Euskadiko Elkargo Ofiziala sortzeko ekainaren 29ko 3/2000 Legearen 1. artikulua xedatzen duenez, elkargoa zuzenbide publikoko korporazio bat dela, nortasun juridiko propioa duela, eta bere

Primero.- Que la Ley 3/2000, de 29 de Junio, de creación del Colegio de Ingenieros en Informática del País Vasco, en su artículo 1 apartado 1, establece la creación del Colegio Oficial de Ingenieros en Informática del País Vasco como



Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de
Protección de Datos



helburuak eta eginkizunak betetzeko gaitasun osoa ere bai, legearen barruan betiere.

Halaber, lege horren zioen adierazpenean xedatzen direla COIIE / EIIEO sortzeko arrazoiak, gizartearen interes orokorraren eta profesional horien interes bereziak zuzen babestearen ikuspuntutik, eta, besteak beste honako hauek direla: lanbidea denon onerako antolatzea eta deontologia ere horrelaxe arautzea; informatika bidez egiten diren gehiegikerien aurka borrokatzea, eta datu pertsonalak erabili behar direnean begirunez egin beharra bultzatzea.

Elkargoaren Estatutuen (2001eko abuztuaren 7ko 152. zk. ko EHAA) seigarren artikulua xedatzen duela COIIE / EIIEO Elkargo Ofizialaren helburu nagusia, bere lurralde eta eskumen-eremuan lanbide-jardun egokia zaintzea dela, herritarrekiko errespetua ziurtatzeko, bai eta elkargoaren eta elkargokideen interes profesionalak eta lanbidearen izen ona zaintzea ere. Zehazki, bere helburua Informatika Ingeniari lanbidea eta elkargokideen interes profesionalak ordezkatu eta defendatzea izango dela, gizartearen interes eta beharizan orokorrekin bat etorriz, hala zuzenbide publikoko nola pribatuko subjektuekin dituen harremanetan.

Era berean Estatutuen 7. artikuluan daude finkatuta COIIE / EIIEO Elkargoaren funtzio nagusiak eta, besteak beste, honakoak direla:

- I. Elkargokideek betebeharrak eta obligazioak betetzen dituztela zaintzea, elkargokideei Lege orokor eta bereziak, estatutu hauek, elkargoaren barne-erregelamenduak eta deontologia araua betearaziz.
- II. Administrazio publikoarekin administrazio-organoetan lankidetzan aritzea, organo horien arauetan horrela aurreikusita dagoenean eta bertan ezarritako

corporación de derecho público, con personalidad jurídica propia y plena capacidad para el cumplimiento de sus fines y el ejercicio de sus funciones con sujeción a la ley.

Que, asimismo, en la exposición de motivos de la citada Ley se indican como aspectos que justifican suficientemente la creación del COIIE / EIIEO, desde el punto de vista del interés público y como organización instrumental eficaz para su consecución, la necesidad de una ordenación profesional y regulación deontológica al servicio de la colectividad, la lucha contra los usos abusivos informáticos y el impulso en el respeto en materia de tratamiento de datos de carácter personal.

Que los Estatutos (BOPV nº 152 de 7 de agosto de 2001), en su artículo 6, establecen que el COIIE/EIIEO tendrá como finalidad última velar, en su ámbito territorial y de competencia, tanto por el correcto ejercicio de la profesión, con objeto de garantizar el respeto a los derechos de los ciudadanos, como por la defensa de los intereses profesionales de carácter general y de sus colegiados y por el prestigio de la profesión. En concreto, tendrá como finalidad básica la representación y defensa de la profesión de Ingeniero en Informática y de los intereses profesionales de los colegiados en congruencia con los intereses y necesidades generales de la sociedad, tanto en las relaciones con sujetos de derecho público como de derecho privado

Que, asimismo, los citados Estatutos, en su artículo 7, establecen como funciones esenciales del COIIE/EIIEO, entre otras, las siguientes:

- I. Velar por el cumplimiento de los deberes y obligaciones de los colegiados, cumpliendo y haciendo cumplir a éstos las Leyes generales y especiales, los Estatutos, los Reglamentos de Régimen Interno del Colegio y la Normativa Deontológica.
- II. Colaborar con la Administración Pública en los órganos administrativos, cuando así esté previsto en las normas reguladoras de los mismos y en los términos en ellas



Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de
Protección de Datos



baldintzetan, organo edo erakunde eskudunek eskatzen dizkioten eta bere kabuz egitea erabakitzen dituen txostenak eginez, eskatzen dizkioten estatistikak landuz eta, oro har, administrazio ezberdinek ematen dizkioten funtzio guztiak betez.

- III. Elkargokideentzat eta zerbitzuak eskaintzen dituzten eremuko gizartearentzat interesgarriak diren kultura, laguntza eta aurreikuspeneko jarduerak antolatu eta zerbitzuak eskaintzea.

- IV. Elkargokideei, lanbidearen garapenari loturik indarrean dagoen legeriaren eta honi egindako aldaketa guztien berri ematea.

- V. Txostenak eta irizpenak ematea, edozein entitate publiko edo pribatuk hala eskatzen dionean.

Bigarrenen. Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitzategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 10. artikuluko 1. paragrafoak xedatzen duenez, DBEB zuzenbide publikoko entea dela, nortasun juridiko propioa eta gaitasun publiko eta pribatu erabatekoa dituela, eta herri-administrazioekiko inongo loturarik gabe beteko dituela bere eginkizunak. Eta eginkizunak honako hauek direla funtsean:

- I. Datuak babesteko legeak bete daitezen zaintzea eta nola aplikatzen diren kontrolatzea, batez ere informaziorako eskubideari eta datuetara iristeko, datuak zuzentzeko, datuen aurka egiteko eta datuak indarririk gabe uzteko eskubideari dagokienez.
- II. Lege eta erregelamenduetan zehazturik dauden baimenak ematea. Beharrezkoa bada, datu pertsonalen tratamendua datuak babesteko indarrean dagoen legediko printzipioetara egokitzeko

establecidos, emitiendo los informes que le sean requeridos por los órganos o entes competentes y aquellos otros que se acuerde formular por propia iniciativa, elaborando las estadísticas que le sean solicitadas y, en general, ejerciendo cuantas funciones le sean encomendadas por las distintas administraciones.

- III. Organizar actividades y prestar servicios comunes de carácter profesional, cultural, asistencial, de previsión y análogos que resulten de interés para los colegiados y para la sociedad a la que se prestan sus servicios.

- IV. Difundir entre los colegiados la legislación vigente con implicaciones en el desarrollo de la profesión y cuantas modificaciones se realicen a la misma.

- V. Emitir informes y dictámenes cuando para ello sea requerido por cualquier entidad, tanto pública como privada.

Segundo.- Que la Ley 2/2004, de 25 de febrero, de ficheros de datos de titularidad pública y de creación de la Agencia Vasca de Protección de Datos, en su artículo 10 apartado 1, establece la creación de la AVPD como ente de derecho público, con personalidad jurídica propia y plena capacidad pública y privada, que actúa con plena independencia de las administraciones públicas en el ejercicio de sus funciones; siendo éstas, entre otras, las siguientes:

- I. Velar por el cumplimiento de la legislación vigente sobre protección de datos y controlar su aplicación, en especial en lo relativo a los derechos de los afectados respecto al acceso, rectificación, oposición y cancelación de los datos de carácter personal de los que son titulares.
- II. Emitir las autorizaciones previstas en las leyes y reglamentos, así como dictar, en su caso, las instrucciones precisas para adecuar los tratamientos a los principios de la legislación vigente en materia de



Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de
Protección de Datos



beharrezko jarraibideak ematea, beste erakunde batzuen aginpideei ezer kendu gabe.

- III. Tartean direnen eskariei eta erreklamazioei kasu egitea eta datu pertsonalak tratatzea dela-eta dituzten eskubideei buruzko informazioa ematea pertsoniei.

IV. Herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz eta beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea eta txostenak egitea.

- V. Datu pertsonalen babesaren gaineko kulturaren zabalkundea egitea, herritarrak sensibilizatuz eta prestakuntza nahiz jardunbide egokiagoen erabilera bultzatuz erakunde publikoetako langileen artean.

Aldetik, datu pertsonalen babesaren arloan lankidetzan aritu beharraren jakitun, Esparru Hitzarmen hau izenpetzen dute eta ondokoa hitzartzen dute:

ESTIPULAZIOAK

LEHENA. Xedea.

Esparru Hitzarmen honen xedea da Euskadiko Informatika Ingeniarien Elkargo Ofizialaren (COIIE / EIIEO) eta DBEBren arteko lankidetzan ildo bat finkatzea, elkar lagunduz, erakunde bakoitzak bere helburuak lortu eta eginkizunak burutu ditzan.

BIGARRENA.- DBEBren betebeharrak.

DBEBk honako jarduera hauek gauzatuko ditu:

- I. Euskadiko Informatika Ingeniarien Elkargoari helaraztea DBEBk datu

protección de datos de carácter personal.

- III. Atender las peticiones y reclamaciones formuladas por los afectados; además de proporcionar información a las personas acerca de sus derechos en materia de tratamiento de los datos de carácter personal.

- IV. Atender todo tipo de consultas e informes que, con relación a la protección de datos de carácter personal, le sean solicitados por las administraciones públicas, instituciones y corporaciones, así como por otras personas físicas o jurídicas.

- V. Difundir y extender la cultura de la protección de datos de carácter personal, sensibilizando a la ciudadanía y potenciando la formación y la adopción de mejores prácticas por parte de los trabajadores de las instituciones públicas.

Conscientes ambas partes de la necesidad de cooperar en el ámbito de la protección de datos de carácter personal formalizan el presente Convenio Marco que llevan a efecto con arreglo a las siguientes

ESTIPULACIONES

PRIMERA.- Objeto.

El objeto del presente Convenio Marco es el establecimiento de un cauce de colaboración entre la AVPD y el COIIE / EIIEO, en el ámbito de la protección de datos de carácter personal, con el fin de apoyarse mutuamente en el cumplimiento de los fines y el desarrollo de las funciones de las respectivas Entidades.

SEGUNDA.- Obligaciones de la AVPD.

La AVPD realizará las siguientes actuaciones:

- I. Trasladar al COIIE / EIIEO aquellas iniciativas impulsadas por la AVPD con



Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de
Protección de Datos



pertsonalen babesari buruz bultzatzen dituen jarduera guztiak, baldin eta jarduera horietatik bi erakundeen arteko kolaborazioak erator badaitezke, bien artean egin ditzaketen jarduerak aztertuz eta ahalbideratuz.

- II. Euskadiko Informatika Ingeniarien Elkargoak datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubideari buruz antolatzen dituen hitzaldiak, biltzarrak, ikastaroak, mintegiak, jardunaldiak eta topaketak antolatzen eta abian jartzen parte hartzea, Elkargoak hala egiteko eskatuz gero eta DBEBren intereseakoak baldin badira.

- III. Euskadiko Informatika Ingeniarien Elkargoak datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubideari buruz egiten dituen eskuliburuak, gidak, gomendioak eta bestelako testuak idazten eta horien zabalkundea egiten laguntzea eta aholkua ematea, Elkargoak hala egiteko eskatuz gero eta DBEBrentzat erabilgarriak edo intereseakoak badira.

- IV. Euskadiko Informatika Ingeniarien Elkargoari lagatzea DBEBk egindako eskuliburuak, gidak, gomendioak eta bestelako materialak erabiltzen eta horien zabalkundea egiten, baina berariaz azalduta zein den egilea, Elkargoak datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidearen esparruan egiten dituen prestakuntza eta zabalkunde jardueretan.

HIRUGARRENA.- Euskadiko Informatika Ingeniarien Elkargoaren betebeharrak.

Euskadiko Informatika Ingeniarien Elkargoak honako jarduerak burutuko ditu:

- I. DBEBk datu pertsonalen babesaren esparruan gauzatzen dituen ekimenak zabaltzea eta sustatzea.
- II. DBEBk datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubideari buruz antolatzen dituen hitzaldiak, biltzarrak, ikastaroak,

relación a la protección de datos de carácter personal y de las que pudieran derivarse colaboraciones entre ambas entidades, estudiando y facilitando la realización de actividades conjuntas.

- II. Participar en la divulgación, puesta en marcha y realización de conferencias, congresos, cursos, seminarios, jornadas y encuentros que el COIIE / EIIEO organice sobre el derecho fundamental a la protección de datos de carácter personal, previa petición del COIIE / EIIEO y que sean de interés para la AVPD.

- III. Colaborar y asesorar en la elaboración y difusión de manuales, guías, recomendaciones y, en general, otros textos relacionados con la protección de datos de carácter personal elaborados por el COIIE / EIIEO, previa petición del COIIE / EIIEO y que sean de utilidad o interés para la AVPD.

- IV. Permitir al COIIE / EIIEO el uso y distribución de manuales, guías, recomendaciones u otros materiales elaborados por la AVPD, previa autorización de la AVPD y con expresa mención a su autoría, en las actividades de formación y/o difusión del derecho fundamental a la protección de datos de carácter personal que el COIIE / EIIEO lleve a cabo.

TERCERA.- Obligaciones del COIIE / EIIEO.

El COIIE / EIIEO realizará las siguientes actuaciones:

- I. Difundir y promover las iniciativas que la AVPD lleve a cabo en materia de protección de datos de carácter personal.
- II. Participar en la divulgación, puesta en marcha y realización de conferencias, congresos, cursos, seminarios, jornadas y



Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de
Protección de Datos



mintegiak, jardunaldiak eta topaketak antolatzen eta abian jartzen parte hartzea, DBEBk hala egiteko eskatuz gero eta Euskadiko Informatika Ingeniarien Elkargoaren interesekoak baldin badira.

III. DBEBri proposatzea zein elkargokidek hartuko duten parte Hitzarmen honen babesean egiten diren jardueretan.

IV. DBEBri lagatzea Euskadiko Informatika Ingeniarien Elkargoak egindako artikulak, eskuliburuak, gidak, gomendioak, ikerketa-proiektuak eta bestelako materialak erabiltzen eta horien zabalkundea egiten, baina Elkargoaren baimenarekin eta berariaz azalduta zein den egilea, DBEBk datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidearen esparruan egiten dituen prestakuntza eta zabalkunde jardueretan.

LAUGARRENA.- Urteko jarduera plana, egitasmoak eta jarduera zehatzak.

Datu pertsonalak babesteari buruzko zenbait egitasmo eta ekintza zehaztu ahal izango dira Hitzarmen honen esparruan. Era berean, urtero eta ekitaldi bakoitza hasi aurretik, urteko jarduera plana erabaki ahal izango da.

Egitasmo, jarduera edo plan horiek zehazteko alde aurretik nahikoa denbora eta behar den aurrekontua egongo dira. Alde biek adostuko dute zein izango den kostu ekonomikoa eta bakoitzaren parte hartzea egitasmo, jarduera edo plan horietan.

BOSGARRENA.- Hitzarmenaren jarraipena.

Hitzarmenaren Jarraipen Batzordeak lau kide izango ditu. Hitzarmena izenpetzen duen alde bakoitzak bi kide izango ditu bertan. Alde bietako edozeinek eskatzen duen bakoitzean bildu beharko da Batzordea eta gutxienez urtean behin. Hona hemen Batzordearen eginkizunak:

encuentros que la AVPD organice sobre el derecho fundamental a la protección de datos de carácter personal, previa petición de la AVPD y que sean de interés para el COIIE / EIIEO.

III. Proponer a la AVPD a los colegiados que participarán en la realización de las actividades al amparo del presente Convenio.

IV. Permitir a la AVPD el uso y distribución de artículos, manuales, guías, recomendaciones, proyectos de investigación u otros materiales elaborados por el COIIE / EIIEO, previa autorización del COIIE / EIIEO y con expresa mención a su autoría, en las actividades de formación y/o difusión del derecho fundamental a la protección de datos de carácter personal que la AVPD lleve a cabo.

CUARTA.- Plan de actuación anual, programas y acciones específicas.

En el marco del presente Convenio podrán establecerse programas o acciones específicas en el ámbito de la protección de datos de carácter personal. Asimismo, con carácter anual y previo al comienzo de cada ejercicio, se podrá concretar el plan de actuación anual.

Dichos programas, acciones o planes deberán ser definidos con la suficiente antelación junto con el presupuesto que, en su caso, sea necesario, concretándose los costes económicos así como la participación en los mismos, de común acuerdo entre las partes.

QUINTA.- Seguimiento del Convenio.

Se crea una Comisión de Seguimiento del Convenio integrada por cuatro miembros, dos en representación de cada una de las partes firmantes. Dicha Comisión se reunirá siempre que lo requiera cualquiera de las partes y como mínimo una vez al año y tendrá las siguientes funciones:



Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de
Protección de Datos



I. Urteko jarduera plana, egitasmoak eta jarduera zehatzak zehaztea, halakorik badago, eta jarduera horiek nola gauzatu eta finantzatuko diren zehaztea.

II. Planak eta egitasmoak betetzen direla egiaztatzeko jarraipena egitea eta, hala badagokio, diru-baliabideen destinoaren jarraipena ere bai, bai eta hobetzeko ekintzak proposatzea ere.

III. Hitzarmenaren ezarpenaren eta interpretazioaren gainean egon daitekeen edozein gorabehera ebaztea.

Batzordearen idazkariak bilera bakoitzaren akta jaso beharko du. Alde bien adostasunarekin hautatuko da idazkaria.

SEIGARRENA.- Hitzarmenaren iraupena eta hitzarmena bukatzeko arrazoiak.

Esparru Hitzarmen hau izenpetu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean, eta behin betiko indarraldia izango du, eta hitzarmena amaitzeko, honakoak gertatu beharko dira:

Alde bietako batek eskatzea hitzarmena bukatzeko, idatziz, eta hiru hileko aurrerapenarekin.

Hitzarmenak ez betetzea.

- Alde biak ados egotea.

Alde bietako edozeinek Hitzarmena bukatzea erabakitzen badu, idatziz jakinarazi beharko dio beste aldeari, eta jakinarazpena egin eta hiru hilabeteko epean bukatu egingo da Hitzarmena.

Hala ere, urteko ekintza-planak nahiz Hitzarmen honen babesean alde biek adostutako Jarduera Planek eta programak edo jarduera zehatzek indarrean segituko dute bertan erabakitakoa bukatu arte.

I. Concretar, en su caso, el plan anual de actividades, y los programas y acciones específicos, así como la forma de realización de las actividades y su financiación.

II. Realizar un seguimiento del cumplimiento de los planes o programas y, en su caso, del destino de las asignaciones y la propuesta de acciones de mejora.

III. Resolver sobre cualesquiera otras cuestiones relacionadas con la aplicación e interpretación del Convenio.

De cada reunión se levantará la correspondiente Acta por parte del Secretario de la Comisión, que será designado de común acuerdo entre las partes.

SEXTA.- Vigencia del Convenio y Causas de resolución.

El presente Convenio Marco entrará en vigor al día siguiente al de su firma y mantendrá su vigencia de manera indefinida, salvo que medie alguna de las siguientes causas de resolución:

- La denuncia de cualquiera de las partes formalizada por escrito con tres meses de antelación.
- El incumplimiento de las cláusulas del Convenio.
- El mutuo acuerdo de las partes.

En el supuesto de que alguna de las partes decida denunciarlo lo notificará por escrito a la otra, perdiendo su vigencia a los tres meses de dicha notificación.

No obstante lo anterior, los planes de actuación anual, así como los programas o acciones específicas acordados al amparo del presente Convenio, mantendrán su vigencia hasta la finalización de lo acordado en los mismos.




Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de
Protección de Datos

ZAZPIGARRENA.- Izaera eta jurisdikzio eskumenduna.

Hitzarmen honek administrazio izaera du; beraz, Esparru Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen ezarpen-esparrutik kanpo dago, hala xedatzen baitu 4.1 c) artikulua.

Jarraipen Batzordeak ezin baditu hitzarmenaren interpretazioari eta gauzatzeari buruz egon daitezkeen eztabaidak ebatzi, administrazioarekiko auzien jurisdikziora bideratuko dira.

Ados daudela adierazteko, alde biek izenpetzen dute Esparru Hitzarmen hau, bikoiztuta, hasieran adierazitako tokian eta egunean, eta Lankidetzaren Hitzarmenaren ale bana hartzen dute.



Izpta.: **Iñaki Vicuña de Nicolás**
Agencia Vasca de Protección de Datos- Datuak
Babesteko Euskal Bulegoaren aldetik




SÉPTIMA.- Naturaleza y jurisdicción competente.

El presente convenio tiene naturaleza administrativa, quedando excluido del ámbito de aplicación la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público, al amparo del artículo 4.1.c) de la misma.

Las controversias que puedan surgir sobre la interpretación y ejecución que no sean resueltas por la Comisión de Seguimiento, se sustanciarán ante la Jurisdicción Contencioso Administrativa.

En prueba de conformidad, las partes intervinientes firman el presente Convenio Marco, por duplicado ejemplar y en el lugar y la fecha indicados en el encabezamiento, quedando un ejemplar en poder de cada una de las partes.



Izpta.: **José Antonio Martínez Ruiz**
Colegio Oficial de Ingenieros en Informática del
País Vasco / Euskadiko Informatika Ingeniarien
Elkargo Ofizialaren aldetik